



# Dilema nuklearra

K. Altonaga



**O**rain dela hilabete zentral nuklear bat bisitatzeko abagadunea eduki nuen zenbait ikaslerekin batera. Han ikusi eta entzundakoak, alde zurririk irakurritako beste hainbat datu kezkarriren gomuta biziagotu zidan eta bai ondoko gogoeta iradoki ere.

Gaur egun petrolio-gertutasuna handia bada ere, arinki ari gara hurbiltzen baliagai berriztezin hau merke eta ugari izan deneko aroaren bukaerara. Hala ere, ezin dugu ahaztu petrolio industria petrokimikorako ezinbesteko lehengai dela eta baita izango dela ere; beraz, neurri bereziak hartu beharko dira gradualki hil-ala-biziko baliagai hau kontserbatzeko. Bestalde, eta berotegi-efektua dela eta, murriztu egin beharko da petrolioaren erabilera erregai nagusi gisa.

Arazo energetikoak badauka munta handiko beste alde bat. Nekazaritzaren ekoizpena kultibatutako lurren azalarekin batera handituz joan da 1950. urterarte. Geroztik, ongarri kimikoak izan dira ekoizpen-emendioaren arrazoi nagusia (1950-86 tartean biztanleko eta urteko ongarri-konsumoa 5etik 26 kilora joan da planeta-mailan). Alabaina, tona bat petrolio behar da ongarri nitrogenatuen tona bakoitzeko; halaber, petrolio premiazkoa da herbizida eta pestiziden produkzioan. Hortaz, petrolio fotosintesi bidez zereal bihurtzean oinarritu da munduko janari-produkzioaren emendioa. Nolanahi ere, etorkizun hurbileko petrolioaren eskasiak, edota prezio handiak eta planetaren beroketa-arriskuagatik ezarritako errestrikzioek, nekazaritza ekoizpenaren jaitziera halabehartuko dute justu populazioaren handiak janari gehien eskatuko duen une berean (Nazio Batuen Erakundearen proiektioen arabera 8.500 milioi lagun biziko dira 2025ean).

Beraz, hemendik gutxira egoera kritikoa aurkituko gara ziurrenik, planetaren beroketa-arriskuak erregai fosilen erabilera drastikoki murriztera derrigortuko gaituenean. Energi iturri bigunetara jo liteke (eguzkitokora, eolikora, mareenera, termikora), baina, oraingo garapen-erritmoekin ezin izango dituzte erregai fosilak ordeztu: iturri horietako energiak munduko premien % 8-10 baino ez da hornituko mende honen amaieran.

Urteak dira kezkatuta gaudela zentral nuklearren proliferazioaz, dituzten begi-bistako arriskuez eta beraien hondakinez, baina, konturatzen hasiak gara gizartearentzat lanjerosoagoa suerta daitekeela petrolio eta ikatza erabiltzea. Krisi ekologikozko egoeran, CO<sub>2</sub>aren emisioen murrizketa drastikoren premia larria eta energia garbier gertutasun guztiz urriarekin, beharbada onargarri litzateke opzio nuklearra irekita mantentzea, irtenbide partzial modura baldin bada ere. Berez, ezinezkoa litzateke CO<sub>2</sub>aren murrizketaren ondorioei aurre egiteko nahikoa zentral eraikitzea.

Planeta berotzearen inpaktua estatu pobreetan izango da bereziki larria; garapenak energia baitu beharrezko, nekazaritza, industria eta etxe beharrezkoak. Datorrigun eszenario beldurgarria Txinak ilustratzen du ondoen: estaturik populatuena ahalegin industrializatzailea ikatzaren gainean oinarrituko da; erreserba handiak baitaizka. Horrela izanik, CO<sub>2</sub>aren maila ikargarriro emendatuko da, munduko industria berori jaitzen saiatzen ari delarik. Txinako, edo beste herrietako, garapena geldiaraztea, zer esanik ez, moralki injustua da, politikoki akabosea eta praktikan ezinezkoa.

